

Kupelen xarma

KUPE-
L A K
s a -
gar-
dote-
gietako zatirik ga-
rantzitsuenak di-
ra. Berauek gabe,
sagardotegiek eu-
ren balorea galdu-

ko lukete. Deposituek kapazitate desberdinak dituzte eta taimanaren arabera daude hain zuzen ere sailkatuta. Barrika da upela txikiena, kuba erdi tamainako upela, ondoren tonela legoke, eta azkenik kupela.

Upel hauek gaztainondoak eta haritzondoak eginak daude. Dena den, egur honek ez dio inolako ezaugarriarik ematen sagardoari eta kupel asko apaingarri besterik ez dira.

Kupelako egurrak, ardotik desberdin, sagardoa ontziratzeke besterik ez du balio. Ardoaren kasuan egurrak azken emaitzean ezinbesteko funtzioa


betetzen du. Sagardoan, berriz, egurren garrantzia estetikan bakarrik dago.

Egurrezko kupelak dituen sagardotegi batek edertasun ezin hobea lortzen du gure arbasoen garaia bueltatzea balitz bezalaxe. Hori dela eta, ezin ahaztu gure sagardotegietan egurrak duen garrantzia. Kupelek duten kapazitatea 5.000 litro ingurukoa da. 10.000 litrokoak ere badaude euskal sagardotegi askotan. Tonelarena, 1.000 eta 3.000 litro artekoa izaten da.

Jakiak

Sagardotegietan kontsumitzen diren plater tipikoek zergatia duten ohitura baten ondorioz urte askotan iraun dute gure artean. Gaur egun sagardotegietan eskeintzen dena zera da: bakailo tortila, bakailo frijitua piper berdearekin, txuleta eta postre moduan gazta intxaurrekin.

Sagardotegietara bisita murriztua zenean eguerdi aldera edota arratsaldeko seiak eta zazpiak aldera egiten zen. Bai modu batean bai bestean, kupeletako sagardo probatu ondoren, urdailera kut-suzko zerbait sartu beharrean zegoen. Gaur egun arraultza eta bakailoa elikagai preziatuak badira ere, garai batean edozein baserritarren esku zeuden produktuak ziren. Txuleta aldiz, sagardotegietan sartu berriko produktua dugu. Denborarekin hauek dira ezarri diren jakiak.



- Astelehenetan itxita
- Asteartetik larunbatera
- Igande eta jai egunetan eguerdi eta gauez zabalik

BIDEBITARTE BASERRIA

Arragua auzoa
Oizartzungo peaje ondoan
☎ (943) 49 21 01

20180 OIARTZUN

ELECTRONICA ELIZONDO SONY

SERVICIO OFICIAL
SERVICIO OFICIAL POST-VENTA

20012 SAN SEBASTIAN
Ametzagaña, 70 bajo (B.º Egia)
☎ 27 70 33 - Fax 27 70 33

20300 IRUN
Bartolomé de Urdinso, 5
☎ 61 42 09